

Deiari "gero arte" esanez. Martin Ugalde, euskararen zerbitzuko zuzendari

[Egile ezezaguna]

Deia, 1983-09-22.

"Gero arte" batez agurtzen gaitu gaur bere ikuspuntutik Martin Ugaldek. Urte askotan, beti izan dugu DEIA-rekin harreman estuetan, eta azken hiru hilabete hauetan, bere ikuspuntura igo gaitu egunero gaurkoak eta atzokoak begirada zabalez ikusten ikasteko.

Hemendik aurrera, beste zeregin batzutan edukiko dugu, Euskararen Sustapenerako Artezkari izandatu aitute, zera da, Euskararen Zerbitzurako Zuzendari. Gure agurrik beroena zuzendu nahi diogu irakurle guztien izenean, eguneroko lerro galdu horien truke euskaldun guztiekin batera beste zerbait irabazi dugulakoan. Eraman dezala "talai" berrira bere ikuspuntu guztietan ekarri digun zabaltasun eta argitasuna.